

DAVANT, J.-L.: **Aberri eta klase burruka euskal Mugimenduan** (Irati saila), Elkar, Baiona 1977, 295 or.

Titulua irakurriz eta autorea ezagutzen, jakin genezake, besterik gabe, nondik nora doan liburua bera: «Aberri burruka eta klase burruka ez ditut elkarretatik bereizten. Bi arazo horiei begira, euskal mugimendua osotzen duten indarrek zer dioten eta zer dagiten ikertu eta azaldu nahi nuke hemen» dio berak.

Hari honetatik, hona hemen aurkibidea: I. Euskal mugimenduaren etorkia; II. Euzko Alderdi Jeltzalea; III. Euzkadiko Langile Klasearen Elkartasun ixilkariak; IV. ETA: Euzkadi ta Askatasuna; V. Ukatzailleen, bereizleen eta baliatzaileen erasoak; VI. Enbata Oldea; VII. Ezker Abertzale baten beharra; VIII. Geroari begira; IX. Azken berri; X. Bilduma: Euskal Indarrak.

Askapen soziala — askapen nazionala: bien arteko dialektika izan da, azken hamabost urteotan bereziki, Euskal Herrian, ETArekin inguruan batez ere, ibili den burrukaren eta eztabaidaren gakoak. Burgosko epaiketaren inguruan jo zuen bere gailurra agian eztabaida horrek, ETArekin barruko eten nagusienetarikoa sortuz. Autorearen azterketa, hain zuzen ere, Burgosko epaiketa hartatik abiatzen da.

Uste dut, EAJ-PNVren pentsaera eta jokabidea aztertzean, gerra aurretik ezkerretik zituen taldeen, bereziki ANVren pentsaera eta jokabidea nabarmentzen jarri behar zitukeela autoreak.

Erdal liburukak Euskal Herriaz

ALTABIZKAR: **Euskadi Nucléaire. (Dossier n.º 1. Le dossier des centrales nucléaires au Pays Basque)**. Elkar, Baiona, 1974. 46 or. 30 x 21 zm.

Offset-ean multikopiaturiko liburuxka honek 5 kapitulu ditu: Les Centrales Nucléaires et leurs risques. La Politique Énergétique Espagnole. Les Basques et l'Atome. Non á la Côte Nucléaire. Conclusion (provisoire).

Duela lau urte idatziriko liburuxka honek, ez du gaurkotasunean fitsik galdu, azken hilabeteotako gertakariekin. Aurkibidetik atera daitekeenez, azterbegi askotatik heldu dio Altabizkar lan-taldeak zentralen nuklearren arazoari. Bata bestearen ondotik datoz, fisika nuklearraz oharrak, giza organismoarekiko eraginak, energi iturrien hauzia, espainiako energi sorburuen arazoa, Euskal Herriko alternatibak, eta abar. Euskal itsasertz nuklearren aurka ateratzen dira. Erabakiak hartu aurretik, 10 bat urtetako itxarondia eskatzen du Altabizkar-ek ondorio horietan.